



Agur Angel, eskerrik asko!

Angel Azkue Orayen falleció el pasado 20 de agosto de 2009. ¡Sirvan estas líneas¹ de sencillo homenaje y recuerdo a un asiduo colaborador de esta publicación y de otras iniciativas municipales!

"Hil berria dugu Angel Azkue Oraien hernaniarra. Donostian hil da 62 urterekin. Albiste tristea, benetan.

...

Arkitektura teknikoa ikasi zuen Bartzelonan. Gizatasun handiko pertsona zen Angel, gure herriaren historia ondo baino hobeto ezagutzen zuena...

Artista ezaguna nazioarte mailan, pintore autodidakta zen, sentsibiltate handikoa, teknika finekoa eta sormen izugarrikoa. Hainbat erakusketa egin zituen Donostian, Bartzelonan, Hernanin (Xalaparta Elkartean eta Biteri Kultur Etxean), Bilbon, Londresen, Argentinako Mar de Platan, Donibane Lohizunen, Ibizan, etab. Etxe askotan daude haren lanak zintzilik. Biteri Kultur Etxean ere bada mihise edo lientzo bat haren sinadura daramana.

Karmelo Labaka Eskolaren kanpo aldean dagoen murala berea da, Eskolaren 50. urteurrena (1948-1998) ospatzeko egin zuena. Hernani 1994 urtekariaren azala ere berak egin zuen. 1982an Xalaparta Elkartean antolatu zen Probintzia Mailako Lehen Pintura Lehiaketa irabazi zuen; eta Epaimahaiaren aipamen berezia jaso zuen, lehen saria konpartituz, Lezoko Elias Salaberria lehiaketa ospetsuan.

... Angel... laguntzeko beti prest egoten zen. Pintura eta eskultura lehiaketa askotako epaimahaikide izan zen, bai Xalapartak antolatzen zituen probintzia mailako lehiaketetan eta baita urtero Urumea ikastolak haurrentzat antolatzen dituen pintura lehiaketetan ere.

Aktiboki hartu zuen parte Hernaniko Turismo Plana-ri buruzko bileretan, 2003-04 urteetan...

Lerro hauek omenaldi txiki bat izatea nahi [ge]nuke, hernaniarren artean leku bat eduki beharko lukeen pertsona honi egin nahi [ge]niokeen omenaldi xumea..."

Eskerrik asko, Angel! ■

¹ Texto extraído de las cartas remitidas a HERNANIKO KRONIKA y a la crónica local de EL DIARIO VASCO el 4 de septiembre de 2009, por Mikel Ruiz.